

Euskaldunak, Cadizko Konstituzioa eta Foraltasuna

Alberdi Sagardia, Mikel

Cadizko Konstituzioaren bigarren mendeurrena (1812-2012) bete berri dugun honetan, egokia deritzogu euskal ikuspegitik kontu honi buruzko hurbilketa apal bat eskaintzea. Izan ere, Aitzin Erregimenaren krisialdia deitzen dugun prozesuaren gako bihurtu zen legedi honek, euskal historian eragin garrantzitsua izan zuen ezbairik gabe, bereziki gure herriaren foru erakundeen biziraupenerako arrisku berria bihurtu zen neurrian. Bide batez, Konstituzio hau euskaldunen artean hedatzeko asmoz itzulitako katixima baten berri ekarri nahi dugu hona, tamalez mota honetako euskal testuak urriak baitira, batik bat XIX. mendearen hasieran.

Gai eztabaidatsua zalantzarik gabe, ez gara lan xume honetan ikuspegi juridikoetan sakontzen saiatuko, gurean ere gai horietan adituak aurrez beren emaitzak eskaini baidizkigute¹. Hurbilketa historiko bat eskaintzen ahaleginduko gara, bitartean, historiografia eztabaida jarraitu nahi duenarentzat gutxieneko erreferentzia batzuk mahai gainean jarritz eta, ahal izan dugunetan, gainera interneteko lotura eskainiz. Izan ere, bigarren mendeurrena bete dugun honetan Cadizko konstituzioari buruzko argitalpenen ugaritasunak zaila egiten du, askotan, ekarpen berritzaileen eta betelanean artean bereiztea.

Euskal Herrian Aitzin Erregimenaren garaian Foru sistema indarrean genuen. XVIII. mende hasieran, Borboiek tronua eskuratu zutenetik, ordura arte bizirauten zuten beste Foru lurraldeek, Aragoeko koroa esaterako, beren legedi bereziak galdu zituztenez, ez zegoen Espainiako erreinuan lau euskal probintziez kanpo beste foru lurralderik.

Euskaldunek “Ondorengotza gerran” Borbondarrei emandako laguntzaren saria izan zen gure Foru sistema errespetatzea. Hala ere, Foruek erregeen boterearentzat muga bat zirenez, Frantziatik etorritako dinastia berria hauen aurkako neurriak hartzen saiatu zen XVIII mende guztian zehar. Honen lekuko ditugu zenbait euskal matxinada, 1717.ean aduanak Ebrotik Bidasoara aldatu zituztenekoa esa-

1. Ikus: MONREAL, Gregorio. “Los diputados vascos y navarros [El reino de Navarra y las Provincias vascas en las Cortes y en la Constitución de Cádiz]”. In: ESCUDERO, José Antonio (ed.). *Cortes y Constitución de Cádiz. 200 años*. Madrid: Espasa, 2011; v. 1, 347-418.

terako. Jarrera zentralistak gora egin zuen Konbentzioaren aurkako gerran gertatutako “Gipuzkoako traizioaren” ondoren. Izan ere, jakina denez, Gipuzkoar Diputazioak frantziar iraultzaileekin sinatzen saiatu zen akordioan, probintziak bere aitzinako independentzia aldarrikatu zuen, erlijioa eta foruen errespetua mantenduz gero, Frantziako errepublikaren parte izateko prest agertu zenean².

Gogoratu behar dugu bestalde, hamar urte lehenago Bilbon bildutako hiru probintzien ordezkarien bileraren helburuen artean aurkitzen dugula “... pueden mejorar la Constitución del País y consolidar la Hermandad que desean perpetuar”³ aipamena. Hau da, euskal erakundeek XVIII. mende bukaeran foru sistemari “konstituzio” izena eman zioten. Ez da harritzekoa, beraz, urte batzuk beranduago Cadizkoarekin parekatu nahi izana.

Bestalde, Konbentzioaren aurkako gerran euskaldunek agertutako jarrera epelaren ondorioz, Godoyk bultzatutako Foruen aurkako oldarraldia pairatzen ari ziren euskal instituzioak Napoleonen armadaren inbasioa gertatu zenean.

Beraz esan daiteke XIX. mende hasieran monarkia absolutua zela foru sistemaren etsai nagusia eta Cadizko Gorteek zekarten sistema aldaketa agian euskal instituzioen salbatzaile gerta zitekeela.

Egia esateko oraindik ere historiagileak ez dira ados jartzen konstituzioa eta foruen arteko bateraezintasunari buruz⁴.

Jakina da Baionako Konstituzioak euskal Foruei buruzko erreferentzia zehatzaz egiten zuena:

Los fueros particulares de las provincias de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Álava se examinarán en las primeras Cortes, para determinar lo que se juzgue más conveniente al interés de las mismas provincias y al de la nación⁵.

Ez omen zen erraza gertatu aipamen hori lortzea, izan ere, Baionako asanbladan Bizkaiko ordezkaria zen Juan José Yandiolak Bizkaiko foru-agintariei bidalitako informazioen arabera, Espainiar diputatuek ez zuten euskal foruen aipamenik egiterik nahi. Baina euskal ordezkari guztien foruen aldeko helburu bateratuak, zein Napoleonen inguruan burututako azpi lanak, Urquijoren aholkularitzak jokatutako paper garrantzitsuarekin batera, Baionako testuak foruei buruzko aipamena eramatea lortu zuten azkenean⁶.

2. Gai honi buruzko laburpena euskaraz: GOYHENETCHE, Manex. “Konbentzioko gerrak eta Gipuzkoa”. In: *Gipuzkoa duela 200 urte*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1993.

3. AGIRREAZKUENAGA, Joseba (ed.). *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las Conferencias firmadas por los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*. Bilbao: 1995; 120 or.

4. Ikus Bartolomé Clavero eta Fernando Mikelarenaren arteko eztabaida: MIKELARENA, Fernando. “Acerca de la compatibilidad entre la Constitución de 1812 y los Fueros: el caso de Navarra”. In: *Sancho el Sabio*, 33, 2010; [<http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3401988>].

5. Constitución de Bayona, 1808; Art. 144. [http://es.wikisource.org/wiki/Constituci%C3%B3n_de_Bayona_de_1808].

6. MONREAL, Gregorio. “Los fueros vascos en la Constitución de Bayona. Antecedentes políticos e ideológicos”. In: *Iura vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, nº. 8, 2011; 169-204 or. [http://fedhav.eu/sites/default/files/lura%208_169-203-Monreal.pdf].

Beraz konpontzeke geratzen zen gaitzat hartu zituzten euskal foruak Baionan, aurrerago aztertu beharko zirenak, nahiz eta praktikan desagertu egingo diren inbasioaren menpe.

Cadizko Gorteak 1810.eko ekainean deitu ziren. Frantsesen inbasioak lau euskal probintziak menperatzen zituenez hautaketak Cadizen zeuden herritarren artean burutu ziren, Diputatu Ordezkoak izendatuz frantziar armada bidali eta hauteskundeak normaltasunez egin ahal izan arte. Beraz, hauteskunde hauen legimitatea zalantzan jarri izan da behin baino gehiagotan, besteak beste, gero Arabako Diputatu hautatua izango zen Prudencio Maria de Verastegui berak honela zioen:

[...] se persuade firmemente que el vecindario de Álava no llebará á bien que despreciando su legitima representacion, se le ponga otra elegida entre un cortisimo numero de individuos suyos refugiados en esta y otro igual poco más o menos de naturales no avecindados que aunque estuviesen en su Provincia no gozarían representación alguna, voz ni voto por ser contra su expresa Constitucion.⁷

Izan ere, ordura arte sekula hautesle izan ez zirenak izan zuten botoa emateko aukera. Gipuzkoako diputatua, esaterako, 140 hautesleek erabaki zuten, erdia baino gehiago Cadizen zeuden armagileak izanik⁸.

Dena den, Gipuzkoarrek hautatutako diputatu ordea Miguel Antonio Zumalakarregi izan zen, Idiazabalen jaiotako legegizona, orduan Asturiasen frantziar inbasioaren aurka borrokan zebilena⁹. Euskal liberalen buru nagusietakoa izatera iritsiko zena, Fernando VII.ak absolutismoa berrezarri zuenean euskal diputatuen artean errepresioa jasan zuen bakarra izan zen, Madrilen kartzelatu izan zelarik. Epaiketa baten ostean absolbitua izan bazen ere, bere kargu guztietatik aldendua izan zen eta Valladoliden konfinatua.



Miguel Antonio Zumalakarregi, Burgosko Entzutegiko lehendakari hautatu zutenean (Zumalakarregi Museoa)

7. GARCÍA MARTÍN, Javier. "Los diputados vascos y navarros en la Cortes de Cádiz. Tres lecturas diferentes de la relación entre Fueros y Constitución". In: *Iura Vasconiae*, nº 8, 2011; 250-251 [http://fedhav.eu/sites/default/files/Iura%208_205-279-Garcia%20Martin.pdf].

8. SÁNCHEZ ARRESEIGOR, Juan José. "El primer constitucionalismo vasco". In: *Historia Contemporánea*, 35. Bilbao: UPV, 2007; 767 or. [<http://www.ehu.es/ojs/index.php/HC/article/view/4123>].

9. Lege gizon eta politikoa liberal bezala bide luzea egin zuen, noski, liberalek Espainiako gobernu eskuratu zutenetan. Gipuzkoako diputatu hautatua izan zen 1836 eta 1839. ean, Donostiako alkate 1840. ean eta bere ibilbide politikoaren abagune gorena 1842an lortu zuen Esparterok bere gobernuan "Gracia y Justicia" ministeritzako buru hautatu zuenean. Ministro bezala urte eskasa bete zuen, baina, zalantzarik gabe, euskal liberalen artean garaiko protagonista nagusietako bat izan zen. Bere biografia osatua ikusteko: ALBERDI, Mikel. *Miguel Antonio Zumalacárregui (1773-1846): Legegizon eta politikari liberalaren biografia*. Ormaiztegi: Zumalakarregi Museoa, 2005. [<http://www.zumalakarregimuseoa.net/files/azterketa-historikoak-vii-2>].

Cadizko Gorteetan euskal ordezkariak eraginkorrena izan zen, zalantzarik gabe, Tomas Zumalakarregiren anaia, batzorde desberdinetan parte hartu zuelako eta Gorteetako Lehendakari izatera iritsi zelako 1813ko urtarrilean.

Arabarrek ere beste legegizon bat hautatu zuten diputatu ordetzat, Manuel Arostegi. Elgean jaioa 1758.ean legeak ikasi zituen Granadan eta Valladoliden. Bertako Chancillerian epaile izan zen eta 1805an hasita Meatzeen Superintendentiako fiskala. Legegizona beraz, Cadizen zeuden 25 arabarrek 1810eko irailean Arabako diputatu orde hautatu zutena¹⁰.

1808tik Arabako diputatu zen Trifon Ortiz de Pinedo bere aurka agertu zen eta kargua bere buruarentzat erreklamatu bazuen ere, Gorteek ez zuten kexa onartu, seguru asko bere jarrera absolutista nabarmenegia zelako, eta Arostegik bere karguaren jabetza hartu ahal izan zuen. Bizkaitarrek, ostera, Baionako Konstituzioa burutu zuen batzordeko partaide bat hautatu zuten, Francisco Ramon Egia Letona durangarra. Militarra gazte gazetetik, Napoleonen aurkako gerran Cuesta jeneralaren agindupean Madril hartzen saiatu zen, jasotako porrotaren ondoren ardurarik gabe utzi bazuten ere. Cadizko Gorteetan, Baionako bileran bezala, parte hartze eskasa izan zuen, hiriko Batzorde militarren partaide izan baizen.

Egiak ez zuen Konstituzioa sinatu nahi izan, ez zuelako probintziaren asmoen berri –frantsesak bertan zirauten– eta bere iritziz Foruak nahiago zituztelako Bizkaian lege berria baino. Azkenean atzeriratzea eta ondasun guztiak galtzearen mehatxua jaso zuenez, ezarri zuen bere sinadura konstituzioan¹¹. Beraz durangarrak argi ikusten zuen Konstituzioa eta Foruen arteko bateraezintasuna eta aurrerago ikusiko dugunez, ahal izan zuenean Cadizko legedi berriaren aurka jo zuen.

Nafarroako diputatu orde, Francisco de Paula Escudero, militarra zen baita ere, Itsas armadako kapitaina¹². Liberal moderatua, 1813an saiatu zen Nafarroako Gorteak bil zitezen Konstituzio berria onartzera, baina Cadizko Gorteek ez zuten proposamena onartu, besteak beste, Migel Antonio Zumalakarregiren aurkaritzarekin, honen aburuz ezinezkoa baizen estatu batean bi erakunde legegile batera aritzetik¹³.

Cadizko Konstituzioan ez dago euskal foruei buruzko aipamenik, Agustín Argüellesi egotzen dioten hitzaurrean ez ezik. Sarrera honetan euskal foruen tradizioaren aipamena egingo dute liberalek, Frantziako ereduak jarraitu beharrean bertakoak jarraitzen zituztela adierazteko, hau da, iraultza frantsesaren eredu jarraitu orde foruen tradizio demokratikoan oinarritzen zirena aldarrikatzeko¹⁴.

10. Ikus bere biografia: SERRANO, Susana. *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1808-1876)*. Vitoria: Parlamento Vasco, 1993; 189-191 or.

11. MIKELARENA, Fernando. *Ibid.* 40 or.

12. URQUIJO GOITIA, Mikel. *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1808-1876)*. Vitoria: Parlamento Vasco, 1993; 370-371 or.

13. MIKELARENA, Fernando. *Ibid.* 43 or.

14. URQUIJO GOITIA, José Ramón. "Vascos y navarros ante la Constitución: Bayona y Cádiz". Pardo de Santayana, José; Ortiz de Orruño, José M^a; Urquijo, José Ramón y Cava, Begoña. In: *Vascos en 1808-1813. Años de Guerra y Constitución*, Madrid: Biblioteca Nueva, 2010; 182 or.

Berez Cadizko Konstituzioak ikuspegi zentralista zuen erabat, “hemisferio bietan biltzen ziren espainiarren nazioarena”. Baina Ameriketako “espainiarrak” gutxi irau zuten ama aberriaren baitan eta penintsulan ere lanak izan zituzten lurralde guztiak berdintzeko saioan.



Cadizko Gorteen saio bat (Zumalakarregi Museoa)

Frantsesek oraindik Durangaldea menperatzen bazuten ere, 1812ko urrian deitu ziren Bizkaiko Batzar Nagusiak Cadizko Konstituzioa onartu zezaten. Bi jarrera agertuko dira eztabaidetan. Ildefonso Sancho buru zuenak, Konstituzioa bere horretan onartzea defendatzen zuen. Aitzitik, Miguel Antonio Antuñano, Gordexolako parrokoa buru zuenak, Foruen eta Konstituzioaren arteko bateragarritasuna defendatzen zuen eta batzarrean nagusitu zen. Honela zioen Konstituzioa eta Foruen arteko harremana aztertzeko eskatzen zuen Batzar Nagusietako txostenak:

En vista de todo lo cual y despues de un maduro y reflexivo examen, en que resultó hasta la demostración, la maravillosa uniformidad que habia entre los principios exencialmente constitucionales de la Constitucion politica de la Monarquia Española y los de la Constitucion, que desde la mas remota antigüedad ha regído, y rige en toda esta Provincia, notándose en los de ésta alguna mas ampliacion que por la localidad y la naturaleza de este

suelo, y por la poblacion, costumbres y carácter de sus habitantes le ha convenido peculiarmente, ha contribuido sobre manera a su propia conservacion, al especial Gobierno interior de la Provincia, y al bien estar de todos sus naturales.¹⁵

Hau da, guk badugu geure Konstituzioa, aitzinetik datorkiguna gainera, zue-narekin parekatu daitekeena eta zertxobait aproposagoa guretzat. Honela Batzar Nagusietako komisió bat proposatuko dute, errege edo bere ordezkariekin Foruen eta Konstituzio berriaren arteko bateragarritasuna azter dezan.

Baina Cadizko Erregeordetzak Castaños jenerala bidali zuen Batzar Nagusiek Konstituzio berria baldintzarik gabe onar zezaten¹⁶.

Urte honen bukaeran Gipuzkoako Foru Aldundiak probintziaren ordezkari zen Migel Antonio Zumalakarregiri galdetu zion ea Foruak bateragarri ziren Konstituzio berriarekin. Honek urtarrilak 5ean bidalitako gutunean erantzun zuen ez zela Foruak berrezartzeko momentu aproposa eta gainera Asturiastik Cadizera egin zuen bidaiari bere ekipajea galdu zuela, tartean Gipuzkoako Foruen alea, eta beste kopia bat eskatzen zuen bateragarritasunaren auzia sakonean aztertu ahal izateko¹⁷.

Hala ere, Gipuzkoan aurrez Bizkaian jazotakoaren antzeko zerbait gertatu zen. 1813ko uztaila bukaeran bildu ziren Deban Batzar Nagusiak eta Castaños jenerala bertan zutela Cadizko Konstituzioa onartzeko bilera egin zuten¹⁸. Hemen ere Batzar Nagusiek Konstituzioaren irakurketa egin ostean honela erabaki zuten:

[...] que las leyes fundamentales del citado Código Nacional y las de la constitución nativa y originaria de Guipúzcoa tienen una íntima analogía y se conforman esencialmente: siendo por otra parte constante en toda la España, que esta Provincia la mas montuosa y esteril, debe a sus peculiares leyes el grado de perfeccion a que ha llegado la agricultura, como tambien el fomento de la industria y el aumento de la poblacion y que tanto por su origen y naturaleza, como por ser este país fronterizo de un enemigo fuerte, ha prestado el Gobierno su proteccion a la observancia de ellas: en esta inteligencia la Junta General admite y jura la citada Constitución de la Monarquía Española, dejando encargada a la Diputación para entenderse con el Gobierno sobre las variaciones, que la situacion y esterilidad de este país fronterizo hacen necesaria para su existencia y bien de la Monarquía...¹⁹

15. *Juntas Generales de Vizcaya*, 1812; 14 or.

16. Prozesu honen azterketa sakona berriki argitaratutako AGIRREAZKUENAGA, Joseba. *Euskal herritarren buru jabetza. Euskal herritarren autogobernu auziaren bilakaeraz (1793-1919). Foruen bidezko erakundetzetik Autonomia Estatuturara*. Irun: Alberdania, 2012; 76-80 or. Espainiar Konstituzioen eta euskal erakundeen arteko harremanen gaia XIX. mende osoan zehar azterten du maisuki historigile bizkaitarrak, ene uste apalez, bokazioz difusio lana izan arren, merezi duen oihartzuna jasotzeko daukan liburu honetan.

17. Gipuzkoako Arxibo Orokorra: JD IM 4/12/1. "Correspondencia de D. Miguel Antonio Zumalacárregui, Diputado a Cortes suplente en las que se reunieron en Cádiz".

18. Gai honetarako ikus: CAJAL VALERO, Arturo. "Paz y Fueros". In: *El Conde de Villafruentes: Guipúzcoa entre la Constitución de Cádiz y el Convenio de Vergara (1813-1839)*. Madrid: Biblioteca Nueva, 2002; 27-35 or.

19. *Actas de las Juntas Generales de Gipuzkoa*. Deba: 1813. Ohartzekoa da Gipuzkoan ere Foruak "constitución nativa y originaria"tzat zituztela.

Bizkaian legez, erabilitako formula anbiguotzat hartu zuten Erregeordetzan eta Konstituzioa herriz herri onartzeko agindua eman zuten.

Arabian, aitzitik, Artziniengan bildutako Batzar Nagusiek ñabardurarik gabe onartu zuten Cadizko konstituzioa²⁰.

Behin Konstituzioa idatzia eta onartua zegoenez ezohiko Gorteak zirenak ohiko bihurtu ziren eta Frantzia 1791.ean egindakoari jarraiki diputatu guztiak aldatzeko erabakia hartu zuten. Baina gerrak penintsulan jarraitzen zuenez, ezin izan zituzten denak aldatu, Gipuzkoa eta Nafarroako ordezkariak, Zumalakarregi eta Escudero berean jarraituz. Hala ere, Gipuzkoan hautatua Jose Antonio Larrunbide izan zen eta Nafarroan berriz, Fray Veremundo Arias Teixeira, Iruñeako apezpikua, Konstituzio liberalaren etsai amorratua. Antzekoa zen Araban hautatutakoa, ares-tian aipatu dugun Prudencio Maria de Verastegui, absolutista sutua hau ere.

Bizkaian bi liberal hautatu zituzten honakoan, Juan Antonio Yandiola eta Manuel Maria Aldecoa. Lehenak argi zuen Konstituzioa Foruen gainetik zegoena, bigarrenak, berriz, hogei urte beranduago foruzaletasun liberalaren sortzaileetako bat izan zen, foruzaletasuna eta liberalismoa uztartu zituztenekoa.

Bitartean Fernando VII.a Napoleonekin Valenceyko hitzarmena sinatzen ari zen abenduan. Napoleonek arazo larriak zituen Frantziako ipar-ekialdean eta han bidaltzen du Borboia Espainiara errege bezala. Konstituzio zaleen gobernuak, Erregeordetzak alegia, erregeek legedi berria onar zezan nahi zuen, baina Fernandok armadaren babesa eta parlamentuaren zati handi baten laguntza bermatu ostean, ez zalantzarik gabe, baina beti bezala maniobra ezkutuak erabiliz, zenbait historiagileek “Estatu kolpe” bezala izendatu dutena eman zuen. Hau da, Fernando VII.ak 1814.go maiatzean boterea berreskuratu zuenean bertan bera utzi zuen Cadizko Konstituzioa, bere botere absolutua indarrean jarriz eta liberalen aurkako errepresio gogorra inposatuz. Gainera, Egia, Bizkaiko diputatu ordea izendatu zuen Gaztela Berriko Kapitain Jeneral. Honek Madrilera joateko agindua jaso zuen, Gorteak disolbatu eta Konstituzioa indargabetzera²¹.



Francisco Ramón Egia Letona, Bizkaiko ordezkaria Baiona eta Cadizen (Biblioteca Nacional IH.2723)

20. RUBIO, Coro. *Liberalismo y fuerismo en el País Vasco (1808-1876)*. Vitoria-Gasteiz: Fundación Sancho el Sabio, 2002; 23 or.

21. Ondoren Gerrako Ministro izendatu zuen 1815ra arte, baita 1817tik 1819ra bitartean ere. Hirurteko liberalen Frantziara erbesteratu zen, bertan Espainiako gobernu liberalen aurkako erresistentziaren antolatzaile nagusietako bat bihurtuz. Angulemaren inbasioan parte hartu zuen. SERRANO, Susana. *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1808-1876)*. Vitoria: Parlamento Vasco, 199; 342-348 or.


Beraz Cadizko konstituzioaren euskal egileen artean hiru jarrera nagusi aurkitzen ditugu. Konstituzioa foruen gainetik jartzen zutenena, Zumalakarregi gipuzkoarra eta Arostegi arabarra. Biak uztartzeko aukera ikusten zuena, Escudero nafarra. Eta konstituzioa foruen aurkakoa zenez onartzen ez zuena, Egia bizkaitarra.

Euskal Herriko foru erakundeek ere Konstituzioa onartzeko agindua jasotzerakoan bere eskumenen defentsa egiten saiatu ziren, nahiz eta Cadizko Erregeordetzaren indar militarren poderioz, konstituzioa bere horretan onartzera behartuak izan.

Egia da 1812.go Konstituzioa bere osotasunean indarrean jartzea ezinezkoa izan zena 1820.era arte, eta orduan ere nahikoa lan, baina artikulua honen hasieran absolutismoak Foruen aurka zeraman eraso aipatzen bagenuen, paradoxikoki, Cadizko esperientziaren ondoren absolutismoa bihurtuko da Foruen berme bakarra.

Esan dezakegu hemen sortuko dela XIX. mendeko euskal gatazka nagusien gakoa. Liberalismoak, berdintasunaren izenean, foru sistemaren aurkako jarrera itxia erakutsiko duenez, foruen defendatzaileek absolutismoaren aldeko apustua egingo dute, gogor egin ere, mendea odolduko duen liskarrak eraginez.

Euskararen historiak ere badu bere lotura Konstituzio honekin. Izan ere, Jose Felix Amundarain Mutiloako parrokoak Cadizko Konstituzioa eskoletan erakusteko katixima politikoren itzulpena burutu baitzuen 1820.ean²².



Jakinbide Iritarautia (Zumalakarregi Museoa)

Ohikoa da gurean apaizek iraultza liberalaren aurkako jarrera nabarmena agertu zutena baieztatzea. Eta bada egia kleroaren gehiengoan, baina ezin dugu ahaztu euskal elizak liberalismoaren defendatzaileak ere izan zituena. Besteak beste, Miguel Antonio Zumalakarregi euskal diputatu beraren bi anai apaiza, Eusebio Antonio eta Jose Manuel, Iruñeko Apezpikuak epaituak izan ziren 1824ean liberal izateaz salatuak²³. Baina beste artikulua baterako nahikoa gai bada hau eta gatozen gurera.



Joxe Felix Amundarain, Zegaman jaiotako apaizak ikasketa zabalak egin zuten, Iruñean, Oñatin, Zaragozan, Valladoliden eta Madrilén, Filosofia eta legeetan. Behin 1791.ean Mutiloko eliza bere gain hartu zuenetik ez dirudi gehiegi mu-

22. Eskuizkribu anonimo honen egiletza argitzeko prozesua ezagutzeko: Cadizko Konstituzioa euskaraz: Joxe Felix Amundarainen "Jaquin-bide Iritarautia": <http://www.zumalakarregimuseoa.net/bloga/cadizko-konstituzioa-euskaraz-joxe-felix-amundarainen-201cjaquin-bide-iritarautia201d>

23. GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel. "Los procesos de eclesiásticos liberales guipuzcoanos del Archivo Diocesano de Pamplona (1823-1824): el caso de los hermanos de Zumalacárregui". In: *Principe de Viana*, Año nº 65, nº 231, 2004; 259-284 or. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=929605>

gitu zenik eta bere biografia burutu dutenek zalantzan jartzen dute bere liberalis-
moarekiko atxikimendua²⁴.

Dena den, Cadizko Konstituzioa zabaltzeko katixima baten itzulpena bere gain
hartzen duenak nahikoa erakusten du bere jarrera politikoa. Amundarainek lana,
Jaquin-bide Iritarautia Española Neurquidaren, edo Constituzio berriaren erara
adrezatua Erritarren arguidorarako, Gazteen icasbideraco, eta Escola-maisuen uso-
*raco izendatu zuen*²⁵. Gainera, bere eskuizkribuaren sarreran eskaintza berezia
egingo dio, “*Don Miguel de Zumalacarreui Goitico Conseju Justiciacoaren Minis-*
troari”. Amundarainek euskal liberalen buru ezagunenetakoa zenari sekulako mi-
respensa erakusten dio:



Jakinbide Iritarautia (Zumalakarregi Museoa)

¿Nori besteri berorri baicic leguez, ta bidez, eta arrazoi andiarequin esquerñi, eta donqui-
tuc diot erderatic eusquerara itzulitaco liburu berez chiquichoa, baña izatez, eta bere ja-
fer-iturrian chit andia, eta alde gucietara miragarria dan au? [...]

¿Nori besteri, diot berriz, eta millabider, berorri baicic donquituco deiquest gaizqui moldatu-
taco nere lan apal au vorondate vorondatetsuarequin, jaquiñaren gainean, ez duala bero-

24. IDIAKEZ, Antón; ARANBURU, Pello J.; BIDEGAIN, Marian; REZOLA, Iñaki. *Jose Felix Amundarain Mu-
xika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825), Goierriko Euskal idazle ezezaguna*. Lazkao: 1998; 76-80 or.

25. Testu osoa 22 oharren loturan.

rrec, dudagabe, parteric chiquiena izandu obra mirarizco au asi zanetic caburaño? Gauza aguiria da: cernen bestela etzuan iñolaz ere berorrec aimbestebait Etsai izango, ezta ere aimbeste pena, eta atsecabe sufriqizun; baña gueroeneco arrazojac bere bidea eramanic, ondo ezagun dirade berorrec Españañarren mesedean beti eguiñ izan dituan, eta eguiten dituan aleguiñac.

Baina zegamarra berandu iritsi zen, Tolosan, Juan Manuel de la Lamarenean argitaratu baitzuten *Españaico uritar constitucionalen cartilla civilia / Cartilla civil del ciudadano español constitucional* katixima elebiduna eta berea argitaragabe geratu zen²⁶.

Halaz eta guztiz ere, meritu handiko lana egin zuen Amundarainek, izan ere euskaraz batere tradizioirik gabeko lexiko politiko-juridikoa erabiltzera behartua zegoen, aurrekaririk gabeko hizkuntza teknikoan aritzera. Euskal literaturaren tradizioa ezagutzen zuena erakutsi digu gainera zegamarrak, Migel Antonio Zumalakarregiri egiten dion eskaintzak Axularrek Gero idazterakoan Bertrand Etxausi egiten dionaren antza izugarria baitu, zenbaitetan perpaus osoak hitzez hitz kopiatuz²⁷. Baina tradizioan oinarritu ezin bazuen hiztegiatar jo beharra zuen nahitaez eta horretarako hiztegi egokiena Aita Larramendiren *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín* zen.

Eskuizkribuaren argitaratzaile izan zen Juan San Martinen hitzetan, “gipuzkeraz idatzia baina Larramendiren hiztegiar ondo kutsaturik”²⁸ dago Amundarainen lan bitxi hau.

Bestalde, Konstituzioarekiko mirespenez egindako lana da zalantzarik gabe, sarreran aurkitzen dugun goraiapamena eredu:

Ecin bear adiña andizcatu litzaque liburucho onen birtezarreac, eta araudeac Españañarrai ecarri dizten zorionac, eta ondasunac; bera izanic aguiaz ilzoriar aurquitcen guñaden Españañar gucioi vicia luzatu diguna: izanic bera gucion argaltasuna indartu duana gañeraco Erreinu, eta mempedun gucion arrigarriac, eta icaragarriac eguiteraiño: izanic bera azquenic, erabat, eta itzbatean esateco, Erbesteco gucion envidia, eta moldetzat erai arreraco servitcen dizten Constitucio, edo Neurquida, Andiaren²⁹ icenarequin oraiñgoz mundu gucian icentatcen dana.

Arestian aipatutako gaia, alegia Konstituzioa eta Foruen arteko harremana ere aipatzen du katixima politiko honek, hori bai, azken hauek zuzenean aipatu gabe. Honela dio *Leendabico Iracurzak*:

P. ¿Veraz, Constitucioa edo Neurquida da gure artean oraiñ sortutaco berritasun bat?

R. Ez: leenagoco Guiza aldietan ere usoa egon ciraden erreguela lenasta, edo principalac; baña moldatcen etzutelako gorputz bat, eta seguruturic etzeucatelaco beren guarda,

26. Transkripzio osoa: <http://www.vc.ehu.es/gordailua>. Aipamena: GALLASTEGI, Cesar. “Cadizko Konstituzioaren aldeko sermoia euskaraz, Hirurteko liberalaren garaian.” In: *Karmel*. 2004, 01. 40-41 or.: http://www.karmelaldizkaria.com/hemeroteca/pdf/2004/01/Karmel_1492.pdf

27. IDIAKEZ-ARANBURU-BIDEGAIN-ARTOLA. Ibid. 74 eta 105-106 or.

28. SAN MARTIN, Juan. “Cadizko Konstituzioa euskaraz 1820”. In: *Euskera*. 32, 1987; 395 or.

29. Jatorrizkoan azpimarratua.

edo eguicaritza; gordetcea ondo etzeturquitenac aaztu-erazo cituzten: eta Gorteac, edo Uri-batzarreac berriro piztu ditu.

Benetan ez da erraza ulertzen katiximaren argudioa, baina hona gure interpretazioa. Konstituzioa ez da asmakizun bat, aurrez egon ziren legedi proposak, baina galduak ziren Cadizko Gorteak berpiztu dituen arte. Hori bai, pasarte honetan ez dago egundaino iraun duen Foru edo “euskal Konstituzioaren” aipamenik. Dena den ahaztura hau ezin diogu Amundaraini egotzi, testua itzulpen bat baita.

Bestalde, bitxikeri modura ekarriko dugu hona, “Espainia handia” osatzen duten herrien zerrenda, izendegí berezia eskaintzen baitigu zegamarrak, Cadizko Konstituzioaren 10. artikulua jasotzen duen pasarte honetan:

P. ¿Cer barruti dauca España andiac?

R. Española barrutiac Oztugartean, edo Peninsulan bere ugartequin batera ersquidatu, edo cabitcen ditu Aragoe, Asturias, Gaztela zarra, eta berria, Catalonia, Cordova, Estremadura, Galicia, Granada, Jaen, Leon, Molina, Murcia, Naparroa, Iru Eusquel-Provinciac, Sevilla, ta Valencia, Ugarte Balearac, Canarias, Africaco beste mempeco guciaquin; Ifar aldeco Amirecatan (sic) España berria, Galicia berriarequin, Yucatan Oztugartearequin, Goatemala, eta Eguzquiaren interaco Provincia barruac, Eguzquiaren sarreraco Provincia barruac, Cubaco Ugarte, Florida biaquin, Santo Domingoco Españari dagocan Ugarte zatia, Puerto Ricoco Ugarte, beste berari, eta Continente, edo Lutugueari dagozcanaquin, ala Ichaso batean nola bestean. America Egoialdecoan, Granada berria, Venezuela, Perú, Chile, Rio Plataco Provinciac, eta Ichaso paquetsuari, eta Atlanticoari dagozcaten Ugarteac, eta gañeraco bere mempe Erriac.

Amundarainen katiximak bukaeran Konstituzioaren garai berria frantziar inbasio aurreko urteekin konparatzen du honela esanez:

[...] era onetan eragozten da Carlos IV. demporan eguiñ oizana eguitea; ceñetan Erritar erruquirenac cagaturic, murguilduric, buruz beraturic taldiquida [kontribuzio] icaragarriaquin, ojec arduragabe gastatzen ciraden Godoi ontartuaren, edo maitearen cuticia, dirugosea asetzeco.

P. ¿Eta atzera biurtu oteditezquean dempora char, doaca ajec, ceñetan Españatarrac villauturic, mallezpeturic, eta azturic lenagoco, edo ancinaco legueezaz, chori maloac becela, guizon baten, edo norbaitzuen parregarri, solasgarri izatera?

R. Ya Españatarrac berendu dituzte locabeac ostu cizten beren derechoac, eta beren esequigobaguetasuna gordetzeco eguin dituzten, eta eguiten dituzten aleguiñ guztizco andiac, dirade prueba, edo arrazoi gainquidariac, edo beguerriac, aurrera ez dutela galcen utzico beren libertadea, neurquida bear becela, eta contuz goardatzean segurururic, zimentaturic dagoana, juramentuarequin batera.

Bukaera optimistegia zeraman katiximak, izan ere, Konstituzio hau mundu guztian inbidiaz ikusia izan zela zion Amundarainek, baina benetan gertatu zena Europako potentziek eredu txartzat hartu zutena izan zen eta Veronako Kongresuan Espainiar esperientzia liberalari bukaera ematea erabaki zuten. Honela 1823.eko apirilean Angulemako Dukea buru zuen “San Luisen ehun mila semeak” izenez eza-gututako armadak, frantziar inbasio berri batekin Fernando VII.enari erregetza absolutua berreskuratzen lagundu zion.

Amundarainek eskertuko zuen bere itzulpena ez argitaratu izana. Baita garai hartan bertan egin zuen espainiar lege berri batena ere, *Dierrico gudartarien erreglamentuarena*, alegia. Izan ere, Milicia Nacional delakoaren araudia ere itzuli zuen Amundarainek, arestian argitaratutako hizkuntzalaritza lan batean³⁰ jakin dugunez, baina hau ere argitaratzeke geratu zen. Honek absolutisten errepresiotik libratu zuen eta bere ondorengo sermoiak aztertu dituztenek diotenez, Konstituzioaren aurkako jarrera sutsua agertuz bukatu zuen bere ibilbidea. Handik gutxira, 1825.ean hil baitzen bere Mutiloko parrokan.

30. URRUTIA, Andres; GALLASTEGI, Cesar. "Euskarazko lexikogintza juridiko-administratiboa. Larramendiren eragina". In: *Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV: Biltzarra*. Bilbao: 2011; 408-409 or. Sarean: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/70513.pdf>